

Lehenengo euskal ipuinlaria

Anjel Lertxundi

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 50-51.

Martin Ugaldere *Iltzalleak* da ahozko tradizioarekiko lotura zuzenetik zein kostunbrismoaren bideetatik desbideratzen eta bide propioa egiten ahalegintzen den lehendabiziko euskal ipuin-bilduma.

Sarritan erreibindikatu dut *Iltzalleak* euskal ipuin modernoaren hastapen gisa. Gauza bera egin dute, nik dakidala, Inazio Mujika Iraolak, Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Elizegik ere. Erreibindikazio gero eta onartuago horrek baditu kortesiatik haratago dauden arrazoi garbiak, gurean Ugalde baitugu ipuin literarioaren autonomia erreibindikatzeko duen lehendabiziko euskal autorea:

"En el País Vasco, y también en España, hay la costumbre de creer que este género es un arte menor dedicado a los niños, algo así como lo que la acuarela de ilustración infantil es a la pintura formal".

Kostunbrismotik guztiz urrun, Martinek eta haren adiskide Jokin Intzak gerra inguruko urteetan bizi eta ikusi izan zituzten gertakari lazgarrien ispilutza egiterakoan, Ugaldere errealismoak bat egiten du galtzaileekin. Erresistentziako ipuinak deitzen die Ugaldek berak, pose neutral-estetikoen juzkuekiko kezkarik gabe. Badakigu, beraz, zein den Ugaldere talaia (haren posizioa ez da sekula ekidistantzia aseptikoa izan, eta ez da inoiz saiatu irakurleak horrelakorik pentsa dezan). Lekukotzaren autentikotasunak du garrantzia, eta ez gertakariaren deskribaketa objektiboste hotzak. Onak eta gaiztoak baino, irabazleak eta galtzaileak bereizten ditu Ugaldek. Edo sufrimendua banatzeko mekanismoen jabe guztiz ahaltsu bihurtu direnak eta sufritzaileak. Historiak banatutakoak, beraz, eta ezjuzku moralak ...

Hala ere irakurleak hautaketa horri iritzi liezaiokeen manikeismoak ironia du ukendu, eta, Lizardiren ondoren, Ugalde dugu tresna horri, gauza bat esan arren beste guztiz desberdin bat erakusten digun baliapide maltzurri, bere benetako neurria ematen dion euskal idazlea: begirada ez da esfinge hotz hieratikoko batena, asmo jakinez bideratua baino ...

Ugaldere lehen ipuinotako modernitatearen beste ezaugarri bat ipuinaren tajukera da, erritmo biziz, elipsiez eta jauzi narratiboez osatua. Iradokizuna, zehar-esana eta ezkututzen dena ere kontakizunaren parte garrantzitsuak dira: idazleak hainbat elementuren ausentzia nabarmentzen du irakurleak lerro-arteko kontakizun eta mezu intsinuatuak ere jaso ahal izan ditzan. Oraindik inork nabarmendu ez badu ere, barnehizketa etengabeak daude, oso dosi laburretan emanak, ipuinotan, eta barnehizketa horien modernitatea, narrazioaren osagarri soil izatea trazeditu, eta narrazioaren beraren motore bilakatzetik dator:

"Thes egin ahal balu! Nondik? Eta bertan hilko balitz? Bertan nola hil? ... Bada, ez zekien bada, bihotz atake batek emanda edo ... ez zekien bada! Heriotza arina izango litzateke hau! ..." «Tranbia hori Andoainera zihoak», esan zuen Xabalek beretzat."

"Hor eserita doazenak lasai asko zaudek. Abertzaleak ote dira? Gehienak bai, noski ... Beraiek zer ote dakite bada, polizia tartean goazenok nortzu garen! ... Lapurrak edo! ..."

"Euskotar denek elkar egingo balute, polizia horiek eta gainerakoak ere aise menderatuko lituzkete bada, e? ..." *Iltzalleak* ipuin-liburuko hizkera nabarmenduko nuke azkenik: Zuzena da. Gihartsua. Kontakizunek berek duten giro urduria jaso nahirik-edo, halako urduritasunezko hizkera bat osatzen du Ugaldek: oso perpausa laburrak, kopulatiboak, puntu suspentsiboak, airean utzitako esaldiak, harridurak, interpelazio zuzenak ...

(Autoreak hala erabakita, Rikardo Arregi sarien banaketarako prestatutako Glosak liburutik aukeratu dugu pasarte hau).